

ZERBITZUEN AGIRIA EUSKERA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabiltzaileak eskubide hauek ditu:

- Euskara Zuzendariordeztako langileek emandako zerbitzua erabiltzaileak berak aukeratu duen hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz) jasotzeko eskubidea.
- Euskara Zerbitzuaren bide ofizialak erabiltzekoa, kexak edo/eta iradokizunak egiteko orduan.
- Euskara Zerbitzuaren zerbitzuei buruzko informazio eguneratua jasotzeko eskubidea.
- Euskara Zerbitzuko programei buruzko informazioa tertzioz jasotzekoa.
- Helduen euskalduntze-programetarako dirulaguntzak jasotzeko aukera izateko eskubidea, betiere horretarako jarritako baldintzak beteta.
- Kultur jarduerak zein ordutan eta non izango diren jakiteko beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea, eta aldaketarik baldin badago, aldaketa horien berri jasotzekoa.
- Erabilitako zerbitzuetan emandako datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermatuta edukitzeko eskubidea.

Erabiltzaileak betebeharrak hauek ditu:

- Programetan izena emateko eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztea.
- Programetan izena emateko dokumentazioa aurkezteko epeak betetzea, tramitazioa modu egokian egin ahal izateko.
- Euskara Zerbitzuaren instalazioak zabaltzeko eta antolatutako jarduerak hasteko orduak errespetatzea.